

# AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



## "Duintasunak emakume izena dauka"

Berdintasun Oihalak ekimenak feminismoa aldarrikatzeko asteburua borobildu zuen / 6-9

## KORRIKA, Urnietara lehenik

Ostegun honetan abiatuko da KORRIKA Irundik. Urnietara datorren asteartean iritsiko da / 2-3



**Pediatria-zerbitzua berrezartzeko eskaera luzatu dio Urnietako Udalak Osakidetzari / 4**



**Saio bikoitza egingo dute Porrotxek eta konpainiak, ostiral honetan, Saroben / 14**



**Elkarrizketa Urnietan bizi den Irati Otxoteko TREK txirrindulari taldeko masajista eta gidariari / 10-11**

**Olagain txistulari elkarteak udaberriko emanaldi berezia egingo du Goiburun, igande honetan / 15**

**Hurria-Sahara elkarteak antolatutako bertso-saioa datorren hilaren 24an izango da / 15**



RURAL KUTXA

**Handitu zure aurrezkiak urratsez urrats**

 Ikusi 16. orrialdea

[www.ruralkutxa.com](http://www.ruralkutxa.com)



## Peto-potea, KORRIKA Andoainera iritsi aurretik

Andoingo KORRIKA batzordeak egitarau-sorta antolatu du, datorren asterako

### MARTXOAK 21

#### OSTEGUNA

**18:00** Peto-Potea. Geldialdiak Juanita Alkain, Zubiaurre.

**19:00** Korrikako Petoen Banaketa Zumea Plazan.



Hurria-Sahara taldeko kideak artxiboko irudian. AIURRI

### MARTXOAK 22

#### OSTIRALA

**09:30** Korrika Txikia. Ibilbidea Goikoplaza, Zuenako Biribilgunea, Goikoplaza.

**11:30** Korrika Gaztea: Zumeatik Goikoplazara. Bideo-Eskolako DJak.

### MARTXOAK 23

#### LARUNBATA

**12:00** Lebiton konpartsa, Zumeatik Juanita Alkainera.

**13:00** Kalejira: DJ Track-a Goikoplazatik Zumea.

**15:45** Korrika Andoain Barrena.

**17:00** Malkogarriyak, Zumea Plazan.


**20:30** Kantu Afaria, Batzokian.



2019an Korrika gauz igaro zen Urnietan barrena. AIURRI

## Lehen murgilketa, datorren astean

Astegun buruzuria ospakizun bilakatuko da Urnietan. Izan ere, datorren astearte iluntzean –martxoak 19– KORRIKAK lehen agerpena egingo du Urnietan. Hernanitik iritsiko da Oztaran aldera, eta, Zabaletan aurrera, Lasarte-Oriarantz abiatuko da. Tarte txikian euskarari eta KORRIKARI babes emateko lehen aukera izango da.



## MARTXOAK 19, ASTEARTEA

KM	Udalerria	Tokia	Ordua
1342	Urnietta	GI-2132, 14b	21:38:37
1343	Urnietta	Oztaran	21:40:26
1344	Urnietta	Oztaran, 4	21:43:30
1345	Urnietta	Lizardi, 1	21:46:42
1346	Urnietta	Lasarterantz	21:52:10
1347	Urnietta	Elubetako bidagunteea	21:54:46
1348	Lasarte-Oria	Kostegi	21:56:32

23. korrika  
**HARRO  
HERRI**

**KANTU  
AFARIA**

**MARTXOAK 23  
ANDOINGO BATZOKIAN**  
20:30etik aurrera

Txartelak auzer eskuratu behar dira  
Martxoak 15 baino lehen  
(688 803 665)

**35 €**  
Menua:  
Zizka-mizkak  
Entsolada epela  
Txahal masalik sailtsan  
Postrea  
Kafea + Kapa

ANDOINGO  
BATZOKIA

Urnietako  
udala

## Kultur saio bikoitza, ostiral honetan

Arratsaldean, pailazoak, Urnietako Saroben. Iluntzean, opera, Andoingo Basteron

#### Erredakzioa URNIETA

"Ez gara jaitsiko ikuskizuna" taularatuko dute pailazoez, Saroben. Arratsaldeko 17:00tako saioko sarrerak arin saldu ziren eta 19:00tako saiorako azken sarrerak geratuko balira, Saroben bertan salgai jarriko dituzte antolatzaileek. Hobe, ahal dela, sarrerak garaz eskuratzea.

Bestalde, iluntzean 20:30ean hasita, Andoingo Bastero Kulturgunera iritsiko da KORRIKAK sustatu duen kultur ikuskizuna. Badon opera garaikidea da, eskarmentu handiko kulturgileen parte-hartzearekin. Ines Osinaga buru, ikuskizun garaikidea eskainiko dute Andoainean.

## Andoaindik bus-irteera Baionara

Korrikaren amaiera festara joateko autobusa antolatu du Andoingo AEK-k. Txartelak salgai dira Ernaitza liburudendan eta Andoingo AEK euskaltegian. Irteera goizeko 09:00tan izango da eta itzulerakoa 19:00tan abiatuko da Baionatik. Txartelak eskuratzeko azken eguna martxoaren 21 izango da. Adin txikiok gurasoen baimen sinatua beharko dute.

## Korrika eguna Urnietan, hilaren 23an

Martxoaren 23an, 16:42 aldera iritsiko da KORRIKA. Goizean, EDTren ikuskizuna izango da; musika-eskolako ikasleek ere parte hartuko dute, eta Poxta Zaharreko kideek bertako produktuen dastaketa antolatuko dute. Hori guztia 11:30etik 14:00etara San Juan plazan. Eguraldi txarra eginez gero, Egapeko jolastoki estalian.

# "Arnasa luzeko lasterketa da KORRIKA"

**GARAZI REDONDO** URNIETAKO KORRIKA ARDURADUNA

Irundik abiatuta, Euskal Herriko errepideetan barna izango da lekukoa, irakurle, honako astekari hau eskuartean duzunerako. Hemen da KORRIKA eta prest dira urnietarrak

**Alba Cabrera Jauregi** URNIETA

**Euskal Herriko errepideetan barrena dabil, jada, KORRIKA. Nola bizi duzue hori antolakuntzaren barruan zaudetene?**

Beti da hunkigarria. Oso gustuko dugu momentu hori. Gure eskualdetik, martxoaren 19an igaroko da, lehenengoz, eta, ordua arte, nahiz eta korrikarik ez egin, gertutik jarraitu ohi dugu, lekukoa nondik dabilen ikusteko. Gainera, aplikazioari esker, uanean-uean, nor hartzten duen ikus daiteke. Prest egongo gara, KORRIKA iristen deneko.

**Aste honetan hasi da lasterketaldia. AEK-k, ordea, aspaldi ekin zion beroketa-lanei...**

Ikasturte hasieratik nabari da urduritasuna KORRIKA igaro ohi den urtean. Badakigu zer datorren. Beraz, irailaren bueltan, jada, martxan jartzen gara. KORRIKA urtea ez denetan ere makina bat zeregin dago egiteko, besteak beste, ibilbidea lotzen hasi behar da, aurreko txandan egondako oztopoei zein zailtasunei erreparatuta. Egia da lanak ez duela egunotan duen bolumena. Urtarriletik martxora arte, atzera kontaketa, maratona izaten dugu: aurreko edizioan parte hartu zutenei galdetu, batzordeak martxan jarri, KORRI-



Redondo, KORRIKAko oihala atzean duela. AIURRI

Karen bueltan tokiko egitaraua sortu... Buruhauste handia izaten da kilometroak zehazteko unea, zati bakoitza nori esleitu erabakitzea, alegia.

**Dena dela, gorde al duzue indarrik korrika egiteko?**

Gogorra da lana, baina gustura egiten dugu.

**Birritan igaroko da Urnietatik lekukoa; ez toki beretik, ordea. Zein ibilbide egingo du bi kasuetan?**

Asteartean, Hernanitik etorriko da. Nahiko ibilbide motza egingo du herrian. Mandazubiko biribilgunetik sartu eta Langar-

da alboko bidea egingo du. Urnietako herrigunea zapaldu bezain pronto, eskuinera joko du, Zabaleta aldetik, bertatik, Urnietara Bidea hartzeko, Lasarte-Oriarantz.

Martxoaren 23an, berriz, ohi bide luzeagoa egingo du. Andoaindik etorriko da, oraingoan, eta, hernaniarrek emango diote jarraipena. Alabaina, geldialdia egingo du Urnietan. Ergoien industriadetik sartuko da, eta Salestarretatik jaitsiko da. Jarraian, AEK euskaltegitik gora, udaletxera iritsiko da.

Itzulia egin eta Aranzubi kaletik iritsiko da lasterketa Idiazabalera. Hala, herri guztia gurutzatuko du, Hernanira iritsi aurretik.

**Lasterketa erraldoiaz bi aldiz gozatzeko aukera izango dute herriarrek. Txanponaren beste aldean, buruhauste bikoitza ekarri al dizue?**

Argi dago lan handiagoa dela, zereginak bi egunetan izango ditugulako. Nolanahi ere, herriak ondo erantzun dio KORRIKARI. Jende askok hartu du parte kilometroa erosten eta ekarpena egiten. Pozgarria da, eta lana arintzen du horrek.

**Eraglie andanak erakutsi du herrian KORRIKAREN aldeko konpromisoa. Zein eskutatik igaroko da hizkuntzaren aldeko aldarrikapena?**

Normalean, eta, aurten ere horrela izan da, Urnietako Udalak beti hartzen du kilometroa. Eskolek ere bai, bai Magale-Salestarrek-ek, bai Egape Ikastolak. Askotariko herri eragileak ere izango ditugu, aurreko edizioetan bezala, tartean: Egape Dantza Taldea, Zanpatuz, Poxta Zahar, Urnietako Kirol Elkarte, Egape Ikastolako Guraso Elkarte... Era berean, bi alderdi politikok ere hartuko dute lekukoa, EH Bilduk eta EAJ-PNVk. Aurten, Aiurrik kilometroa erosi du Urnietan. Eskualdeko enpresen parte-hartzea izan da berrietasunik handiena: Moldeberri, Iner eta Lehengoak enpresek hartu dute kilometroa. Pozgarria da, lehen esan bezala, herriak ondo erantzun duelako.

**Ongi-etorri beroa emango diote datozen egunetan urnietarrek KORRIKARI, ekintzez betetako egitarauarekin.**

Martxoaren lehenean, Aiurri-ekin elkarlanean, kantu-afaria izan genuen Altuna sagardotegian, Kantazaunekoekin batera.

Martxoaren 15ean, "Ez gara jaitsiko" ikuskizuna izango da Saroben, Porrotx eta konpainiarekin. Ikuskizun bikoitza izango da. Martxoaren 23an, egun osoko festa izango dugu: goizean, musika eta dantza izango dira nagusi Egape Dantza Taldearen, Kantazaunen eta Lourdes Iriondo udal musika eskolako ikasleen eskutik. Ondoren, tokiko produktuen dastaketa antolatu du Poxta Zaharrek. Behin indarrak batuta, bazkalostean igaroko da, bigarrenez, KORRIKA Urnietatik.

**Nola bizitzen da KORRIKA urtea euskaltegiko ikasgelan?**

Sarri, guk ezer esan aurretik aipatzen digute guri, "aurten pasako da KORRIKA!". Zirrara berezia nabari da euskaltegian KORRIKAREN etorrerarekin. Apaindu egiten ditugu ikasgelak, banderolekin zein petoekin, baita apaingarrieekin ere.

**Martxoaren 24an amaituko da KORRIKA Baionan, eta zuek hara joateko autobusa antolatu duzue. Zer egin beharko du interesa duenak?**

Autobusa antolatu dugu. Urnietatik abiatuko da goizeko 08:00etan. Ondoren, Hernanitik eta Astigarragatik igaroko da, Baionara salto egiteko. Itzulera, arratsaldeko 19:00etan izango da. Joan-etorriak 13 euro balio ditu eta euskaltegian eman behar da izena. Azken eguna martxoak 21 izango da. Martxoaren 24ko festara animatzen ditugu urnietarrak!

**Gomendiorik bai euskararen alde korri egingo duten zoro zoragarrietzat?**

Arnasa luzeko lasterketa da KORRIKA. Hasi berri dago lasterketa, bete-betean gaude horretan. Beraz, batu indarrak 19rako eta 23rako. Furgonetakoei diotenari gogor erantzun! Aupa!

bertako  
igogailuak | ascensores  
KORRIKAN ERE

EUSKARA,  
GURE HELBURU  
PARTEKATUA

943 903 450 bertoko.eus



## KOMUNITATEA

BURUNTZALDEAKO ETXEBIZITZA SINDIKATUA BETERRI-BURUNTZA

## Sahararen aldeko ekimenak, Andoainen

Hurria Sahara elkarteak Udalaren eta herritarren laguntzaz hainbat jarduera antolatu ohi ditu, urteko lehen hilabeteetan: janari-bilketa, mozioa udalean, bertso-saioa... Martxan dago 8 eta 12 urte bitarteko saharar haurrak euskal familien etxeetan udako bi hilabeteak igarotzeko familia eta norbanakoentzat informazio-kanpaina.

Urtez urte, Andoainera haur saharar ugari etorri da uztaila-abuztuan basamortuko baldintza gogorak saihesteko asmoz: 50 gradutik gorako tenperaturak, hare ekaitzak...

Gure artean egiten duten egonaldian, haurren osasuna nabarmen hobetzen da elikadura orekatuagoa egiteko aukera izaten baitute egunean bost bazkari eginez, elikagai fresko, barazki, fruta,

proteinak eta abar hartuz.. Osakidetzaren laguntzaz oinarrizko osasun-azterketak egiten dira eta kanpalekueetan antzeman edo tratatzea zailak diren gaitzak artatu: ikusmen- eta entzumen-arazoak, hortzetako gaitzak... Udal kiroldegiko jardueretan eta "Goazen Jolastera" programan parte hartzekoa aukera izaten dute haurrek ere.

Baina, batez ere, bi herri eta kulturen arteko trukeaz ari gara, bi hilabetez, eguneroko bizitzan esperientzia berezi bat bizitzeko aukera ematen diguna Sahara eta Euskal Herriko haur, familia eta herritarrei: denei ohiturak aldatzea eta egokitzea eskatzen die, uda batez ahalegin ezberdin bat egitea, baina bizipen

aberasgarri bat izateko aukera da ere.

Andoaingo Udala arduratzen da bidaia-gastuez, kudeaketalaneez... Izen-ematea zabalik dago, Gizarte Zerbitzuetako gizarte-zerbitzuak@andoain.eus posta elektronikora idatziz edo 943 304 343 telefono zenbakira deituz.

Hurria Sahara elkarteak kideak ere informazio osagarria emateko prest daude 677 806 978 telefonoz edo Whatsapp bidez, baita oporrakbakean.eus webgunearen bidez ere.

**MARTXAN DAGO 8-12 URTE BITARTEKO SAHARAKO HAURRAK GURE ARTERA EKARTZEKO KANPAINA**

Jakinarazi nahi dugu ere joan zen martxoaren 9an janari-karabana abiatu zela Donostiatik Sahara aldera: Andoainen, 3500 kilo inguru jaso ziren eta, aurrean, gluten gabeko beste 1000 kilo bidali dira ere. Horregatik guztiagatik, eskerrak eman nahi dizkiegu herritarrei, ikastetxei, saltokiei eta Udalari.

Azkenik, Sahararen aldeko bertso-saioa Bastero Kulturgunean ospatuko da martxoaren 24an, Punttuka Bertso-Eskolak eta Hurria Sahara elkarteak antolatuta. Sarrerak aurki egongo dira salgai ohiko lekuetan eta honako bertsolari hauek hartuko dute parte: Amets Arzallus, Sustrai Colina, Oihana Iguaran, Maialen Lujanbio, Aitor Mendiluze eta Lierni Rekondo.

### Pediatría-zerbitzuen etenaldia, Urnietan

**Erredakzioa** URNIETA

Aurrez aurreko pediatría-zerbitzurik gabe daude urnietarrak. Pazienteez Hernaniko osasun-etxera jo behar dute horretarako. Hala, Osakidetzarekin harremanetan jarri da Urnietako Udala, dagoen premia azaltzeko asmoz. "Hark adierazi du aldi baterako neurria dela", jakinarazi du Urnietako Udalak, "eta zerbitzua presentziala izango dela, ahal bezain laster".

Herrian sortu den kezka aurrean, udalak argitu nahi du Urnietako pediatría-plaza ez dela inoiz ezabatu nahi izan: "Ez da murrizketa bat, baizik eta bestela sortutako egoera puntual bat, eta ez dago espezialistarik zerbitzu hori nahi bezain azkar betetzeko". Bilera bat eskatu du alkateak Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin.

Ordu batzuk lehenago, herri-kide askoren artean, telefono bidez mezu bat zabaldu zen, eta, bertan, egoeraren berri ematen zen.



pirritx, Porrotx  
eta Marimotots

# EZ GARA JAITSIKO!

**Martxoak 15, ostirala**  
Sarobe antzokia. URNIETA  
Bi saio: 17:00 / 19:00

**8€ Sarrerak salgai:**  
BKN, Ernaitza, Aiarri

AIURRI  
aek  
AIURRI  
URNIEKIN DA

Urnietako udala

## POSTONTZIA

BURUNTZALDEAKO ETXEBIZITZA SINDIKATUA BETERRI-BURUNTZA

**Oinarrizko bizi bitartekoak bermatu!**

Neguko arropa eta manta banaketa, fakturak ulertu eta energia enpresen gehiegikeriei aurre egiteko tailerra, hornidura arazoei irtenbidea emateko aholkularitzak... Energiaren arazoari heldu eta aipaturiko lanetan jardun gara azken bi hilabeteotan.

Izan ere, egoera ez da batere samurra. Krisi garaioan korporazio handiek langileon gaineko presioa handitu dute, besteak beste, prezioen igoera izugarriaren bitartez, gure soldatak erasotuz. Horrela, egoeraren gordintasunaren adierazle da, egun, EAEn jada

10 etxetatik 1 pobrezia energetiko egoeran izatea. Txanponaren beste aldean, berriz, energia enpresa handiak inoizko irabazi handienak eskuratzen ari dira. Horren adibide dira orain aste gutxi Iberdrolak aurkeztutako 2023ko emaitzak: 4.803 milioi euroko irabaziak izan zituen, historiako handienak.

Bestalde, alderdi politiko profesionalen papera ezin da aipatu gabe utzi. Enpresari eta bankari handien menpeko, marketin politikorako erabakiak baino ez dituzte hartzen. Harturiko neurriek ez dute zalantzan jartzen

oinarrizko bizi bitartekoaren gainean energia enpresek duten kontrola, ez eta haien irabazia ere. Etekin eta interes kapitalistak ukiezinak dira, energiarako sarbide unibertsalaren kaltetan. Halaber, bereziki nabarmentzekoa da alderdi sozialdemokratek auzi honetan duten erantzukizuna; hornidura mozketak debekatu dituztela dioten arren, bai estatistikek (2021ean 522.107 argindar eta 26.853 eta gas mozketak Espainiako Estatuan) eta baita Sindikatuaren jardunak ere (Buruntzaldean azken hilabeteetan hamarnaka

hornidura mozketak) kontrakoa erakutsi dute.

Era berean, gogor salatu beharrekoa da, etxejabeek mozketak maizterren gaineko presioa ere erabiltzea, legez kanpoko etxegabeteak gauzatzeko. Horren adibide garbia da, 2023ko irailtik abendura Etxebizitza Sindikatu Sozialistetara jo zuten pertsonen egoera aztertuta, hornidura mozketen erdia etxegabetez prozesu baten testuinguruan ematea.

Proletargoak bizi bitarteko oinarrizkoenak ere ez ditu bermatuta kapitalismoan, eta bitartean, enpresariak egoera

baliatzen dute irabaziak pilatzen jarraitzeko. Horren aurrean, denontzako kalitatezko bizi baldintzen alde antolatzea dagokigu, ideia argi bat hedatzearekin batera: oinarrizko bizi bitartekoak (bai energia hornidurak, baita etxebizitzak berak ere) denontzat bermatuta egon beharko luketela.

Hala, helburu argi horrekin bat egiten duen pertsona orori Buruntzaldeako Etxebizitza Sindikatuan antolatzeko deia luzatu nahi diogu.

Oinarrizko bizi bitartekoak bermatu! Energiarako sarbidea denontzat!

**SAHARAREN ALDEKO BERTSO SAIOA**

**Andoaingo Bastero Kulturgunean Martxoaren 24an 12:00etan**

**Sarrerak salgai: Delgado, Ernaitza, Stop eta Urrats 8.00€**

**Sustrai Colina  
Amets Arzallus  
Lierni Rekondo  
Oihana Iguaran  
Aitor Mendiluze  
Maialen Lujanbio**

**Gai jartzailea:  
Maddi Etxeberria**

**Antolatzaileak:** Otunna Sahara Puntuka

**Loguntzaileak:** AIA AIURRI urkiola ANDOAINGO UDALA



San Juan plazan deitu zuen elkarretaratzea Urnietako Udalak. AIURRI

# Hitzordu bikoitza Urnietan, martxoaren 8an

Bi hitzordu izan ziren Urnietan, joan den asteko ostiralean, Emakume Langilearen Nazioarteko Egunaren bueltan. Udalaren deialdiarekin bat egin zuen Bagara talde feministak. Itaiak, bere aldetik, Zaldundegi plazan egin zuen bere elkarretaratzea

## Erredakzioa URNIETA

Alde batetik, elkarretaratzea izan zen, San Juan plazan, Urnietako Udalaren ekimenez. Bertan, udaleko alderdi guztietako ordezkariak izan ziren, herritarrekin batera. Beste alde batetik, Itaiarekin batera mobilizazioa batu ziren eskualdeko zenbait herrikide. Zaldundegi plazan izan zen kontzentrazioa, "Emakume langileok borrokara" lelopean.

"Emakumeen nazioarteko eguna", zioen pankartak Udalak deitutako elkarretaratzean. Borobilean bildu ziren herritarrak eta sistema patriarkalak emakumeen ideiak "ikusezin" bihurtu dituela adierazi zuten Ostolaza zinegotziak eta Gallo teknikariak. Hala, horren aurrean, hainbat ardura hartu zituen Urnietako Udalak, herrian, erakunde partetik, oinarri feminista eraikitzen jarraitzeko asmoz. Ekitaldia biribiltzeko, musika-errezitaldia egin zuten.

## Itaiaren elkarretaratzea

Zaldundegi plazan egin zuten bilkura, "emakume langileen borroka indartzeko eta babesteko" aldarrikapenez. Ospakizun kutsutik ihesi, egunak duen "zentu iraultzailea" nabarmendu zuten irakurketan: "Gizarte kapitalistaren barnean, emakume langileok bigarren mailako subjektuak gara: soldata baxuak, kaleratzeak, egun osoko lanal-

diak... Bestalde, eta, horrekin lotuta, kulturalki zapalduak izaten jarraitzen dugu, indarkeria matxistak gizartean indar handia du eta". Instituzioekiko jarrera kritikoa agertuta, auziari aurre egiteko gakoa ikuspegi sozialista dela mahaigaineratu zuten, "emakume langileen interesak lehen lerroan" jarrita nahiz "enpresariaren zein instituzio kapitalisten fartsatik kanpo".



Itaiak elkarretaratzea deitu zuen Zaldundegi plazan. AIURRI

## Adierazpena eta musika emanaldia



Etxeberria, Izagirre, Donavera eta Solano. Eskuinean, Mercader. AIURRI

**Udal Musika Eskolako ikasleak** Jone Izagirrek, Enara Donaverak eta Irati Etxeberriak, Kris Solanorekin batera, Izaro eta Huntza taldeen melodiak abestu zituzten plazan. "Zutik emakumeak" kantu ezagunarekin eman zioten amaiera elkarretaratzeari.



Ainhoa Ostolaza zinegotzia eta Edurne Gallo teknikaria. AIURRI

**Udalaren adierazpena** Ainhoa Ostolaza berdintasun zinegotziak zein Edurne Gallo berdintasun teknikariak hartu zuten hitza, EUDEL-ek adostutako irakurketa egiteko. "Zuetaz harro!" izenburuko adierazpena izan zuten hizpide.



Bagara talde feministako kideak. AIURRI

**Bagara talde feminista** Herriko Bagara talde feminista Udalak deituriko ekitaldira hurbildu zen. Hiru urteko ibilbidea osatu du taldeak. Larunbat hontan, egun osoko jardunaldia antolatu dute, antimilitarismoa eta feminismoa uztartuta.



Jendetza elkartu zen martxoaren 8ko manifestazioan. AIURRI

# Martxoaren 8ko ekitaldi jendetsuak, Andoainen

Emakumeen aldeko borrokak indartsu darrai Andoainen, eta martxoaren 8aren harira antolatutako deialdiek joera hori berretsi dute. Iazko azaroaren 30eko Greba Orokor feministarekin gertatu bezala, oraingoan ere dozenaka herrikide atera zen kalera

## Erredakzioa ANDOAIN

Andoainen indar bizia hartu du mugimendu feministak. Gazteen artean, Traka taldea ari da eragiten. Eta, helduxeagoen artean, Andoaingo Asanblada Feminista. Batzuk eta besteak elkar hartuta, indar biderkatzailea dutela ageri da. Izan ere, Greba Orokor feminista izan edo Martxoaren 8ko manifestazioa izan, jendetza erakartzeko gaitasuna erakusten ari dira. Gaur gaurkoz, erantzun onena lortzen duen borrokaldia da herrian.

Aurreko ostiralean, martxoaren 8arekin bat eginez, Goikoplazan hasi eta Zumea plazaraino iritsi zen manifestazioa. Bidean, "Gora borroka feminista" bezalako oihuak lau haizeetara zabaltu zituzten. Amaieran, borobilean jarri, eta mugimendu feministaren bozeramaileek irakurketari ekin zioten. Zaintza eskubide kolektiboaren aldarria egin zuten, azaroko grebaren ildo nagusiarekin bat eginez: "Zaintza eskubide bat delako, baina baita

denon ardura ere. Horregatik, gaur ere, zaintza-lanen ikustaritzeak ezinbestekoa izaten jarraitzen du. Euskal Herrian zaintza-ereduaz hitz egiten ari garelako, sistema publiko baten beharra aldarrikatu eta pribatizazioa salatzen dugulako". Euskal gobernuak pribatizazioaren bidea aukeratu duela kritikatu zuten, adierazpen berean.

## Afaria, ostean

Berrehundik gora lagun elkartu zen Zumea plazako olanapean, martxoaren 8ko afaria ospakizun bilakatuz. Askotariko jatorria duten emakumeen bilgune bilakatu zen eguneko bigarren hitzordua. Barazki paella das-tatu ostean, askotariko doinuak ipini zituen disko-jartzaileak. Sekulako festa izan zen.



Manifestazioa Kale Nagusian barrena. AIURRI

## Berrehundik gora lagun, afarian



Lagunarte ederrean aritu ziren kantuan. AIURRI



Askotariko belaunaldiak elkartu ziren Zumea plazan. AIURRI



Paella ederra jateko aukera izan zuten afarira hurbildu zirenek. AIURRI

**AIURRI**  
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

**MARTXOAK 8**  
argazkiak eta bideoak,  
klik bakarrera

[www.aiurri.eus](http://www.aiurri.eus)



"Berdintasun Oihalak" ekimenean parte hartu zuten gehien-gehienak ageri dira argazkian, antzezlan amaitu ostean egindakoa. AIURRI

# Urrunera iritsiko dira

Andoainen sortu den talde-eragileari eta konplize askoren lankidetzari esker, martxoaren 8an eta 9an dozenaka emakumek oihukatu, oihalak haizatu, afaldu, dantzatu eta gozatu zuten. Bekoplazako pankarkak ondo zioenez, urrunera iristeko prest daude. Martxan dira

**Jon Ander Ubeda** ANDOAIN

Gobaragileek ekin zioten antzezanari, eta, bat-batean, zelatan zituzten instagramer gazteak. Geroxeago, Andoainen bizi baina afrikar jatorria duten emakume gehiago hurbildu zitzaizkien. Ibaiaren ertzean, antzezanaren hasieran, ikusleak garai, belaunaldi eta jatorri talka askoren lekuko izan ziren. Baina

bada guztiak batzen dituen ziurtasuna: denok izan dugu arropa ur hotzetan garbitu duen arbaso bat. Eta hura, ziur, emakumezkoa da. Gisa bereko emakumeak izaki, bigarren mailako aztergaia da jatorria, adina zein garaia. "Duintasunak emakume izenadu!" oihukatuz, berdintasunaren eta feminismoaren aldarria egin zuten antzezleek. Haizeak, tar-

teka, antzezpena behar bezala jarraitzea oztopatu bazuen ere, bertan ziren denek ulertu zuten antzezanaren muina: emakumearen aldarrikapenak aspaldikoak direla, eta urrunera joateko prest daudela. Oinarri sendoa dago Andoainen. Zabala, askotarikoa da. Manifestazioa, afaria eta martxa ibiltaria adibide aski argigarriak izan dira.

## Antzezlan Aiarri.eus gunean ikusgai



Gazte instagramerrak, Leitzaran ibaiaren ertzean. AIURRI

Hamabost minutu pasatxoko antzezlan da, aspaldiko gobaragileen jardunarekin hasi zena. Umorea, memoria, aldarrikapena... Osagai ugari zituen larunbat eguerdiko antzezenak. Kamera ezberdinekin hartutako irudiekin eta soinu-mahaitik hartutako audioarekin antzezan osoa ikusteko aukera dago Aiarri.eus gunean, bideoak atalean.





Zuena elkarteko dantzariak saioa eskaini zuten Ama Kandida etorbidean, San Juan Bataiatzailea egoitzan. AIURRI



Kalez kale ibili ostean, Bekoplazara iritsi den Berdintasun Oihalak martxa. AIURRI

## BALORAZIOA

HELENA ZUBILLAGA ANDOAIN

# Martxoaren 8ko emozioak

Historia egunez beteta dago, eta egun horiek igaro diren moduagatik, egun historiko eta protagonista nagusi bihurtu dira. Egund seinalatu horietan gertatu dena erabakigarria izan da, neurri handiagoan edo txikiagoan, historiaren bilakaeran, eta baita eraikitzen jarraitzen dugun etorkizunaren eraikuntzan ere. Martxoaren 8a egun horietako bat da, eta urtero goraiatzen eta gogoratzen duguna ez da leku zehatz batean gertatu zen gertaera jakin bat. Ospatzen duguna borrokaldi latz eta etengabea da, planetaren bazter guztietara hedatua irudikatzen dena. Bide batez, emakumeen eskutik iritsitako lorpen sozial, ekonomiko, politiko eta kulturalak gogoratu nahi ditugulako.

Kontatu digutenez, hastapena 1908ko martxoaren 8an dago, New Yorkeko Cotton ehun-fabrikari, emakume talde bat grebarako bildu zenean, eta jabeak fabrikari giltzapetu eta eraikinari su eman zionean. Horren ondorioz, 129 emakume hil ziren. Baina Begoña Marugan adituak esan digu egun horretan ez zela inolako suterik izan New Yorkeko ehun-fabrikatan, eta ez zela inolako grebarik egin

igandea zelako. Atsedean eguna baitzen. Halaber, esan digu 1911ko martxoaren 25ean sutea izan zela ehun-fabrika batean, eta emakume asko hil zirela, 17 eta 24 urte bitarteko neska etorkinak. Data horiek baino lehen, emakumeak hasita zeuden beren lan-baldintzak hobetzeko borrokan, manifestazioak eta grebak deituz. Manchesterren 1853an, New York 1857an, Espainian 1905ean eta 1921ean.

1908an, New Yorken, emakumeek manifestazioa egin zuten "Pan y Rosas" lemapean, lan-ordutegiaren murrizketa, soldata hobeak, botoa emateko eskubidea eta haurren lanaldiekin amaiera eskatzeko. Emakumeek ere 1911n aldarrikatu zuten kargu publikoak betetzeko eskubidea, irakaskuntzarako eskubidea eta lan-diskriminazioaren amaiera. 1917ko martxoaren 8an, emakume errusiarrak matxinatu egin ziren elikagairik ez zegoelako. Tsarren erregimenarekin amaituko zen prozesu iraultzaileari hasiera eman zioten. Marugan adituak dioenez, gertaera horren jatorri komunista ezabatu da.

XIX. mendeko emakume haiek aurreikusiko lukete munduko emakumeek ehun



Helena Zubillaga antzezlea, zapi zuriekin, Precius eta Nabilari begira "Berdintasun Oihalak" ekimenaren amaierako antzezlanean, Bekoplazan. AIURRI

urteren ostean, kalera irteten jarraituko zutela beren lelo berberak oihukatzeraz?

Berthe Morisot margolari inpresionistak beste emakume margolari batzuei bidea ireki zien. Emakume aitzindariak 1864an idatzi zuten: "Behar duguna emozio berriak dira, baina non aurkituko ditugu?". Emakume hark ez luke irudikatuko 2024an emakumearen eguna ospatzeak andoaindar askori aukera eman digula akaso berak bilatzen zituen bezalakoak izan ez diren emozioak aurkitzeko, baina, zalantzarik gabe, guretzat berriak eta biziak izan dira.

Martxoaren 8a, gutako askorentzat, garaiz hasten da forma eta indarra hartzen. Emozioa, pentsamendua, desioa sortzen hasten da, eta uneoro presente dago funtzeskoa dena: emakumeen eskubideak aldarrikatzea. Pixkanaka-pixkanaka, asmatzen, irudikatzen, aurrez aurre jartzen, partekatzen, taldean lan egiten, elkarren seme-alabak zaintzen, aliantzak sortzen, harreman berriak ezartzen, barre egiten eta taldean gozatzen hasten da.

Hori guztia, aurren ere, agerian geratu da. Joan zen asteburuan, esaterako.

Hilaren 8an elkarrekin eseri ginen mahaiaren bueltan barazki-paella jateko. Emakume asko ginen. Batzuk Andoainen jaiotakoak, beste batzuk Nigerian, Galizan, Nikaraguan, Marokon, Extremaduran, Ghanan, Saharan... Elkarrekin dantzatu genuen, elkarri begiratu eta errespetuz hitz egin eta entzun genuen. Aliatu egin ginen. Baina ez geunden denak, gaixorik eta ospitaleratuta zeudenak falta ziren, gauez lan egiten zutenak, norbait zaintzen ari zirenak, agian, beren buruari "emozio berri baten bila noa!!!", esatera ausartu ez zirenak. Egund aldarrikatzaile horretan festaren arrazoia argi ikusten ez zuten emakumeek ere falta ziren.

Larunbata, aldiz, egund berezia eta hunkigarria izan zen, emakume asko ibili baitzen kalez kale, guztien artean zer ehundu zitekeen erakusten. Gure herriko garbitegiak eta gobaragileen bizitza gogorra biziberritu genuen. Ondoan, Nabila eta Precius genituen, eta guretzat emozio berria bizitzea suposatzen zuten. Eskerrik asko guztioi.

Ez ahaztu, feministak garelako, emozio berriak bilatu behar ditugu.

**Andoni Urbistondo** URNIETA

Irati Otxotekok sei edo zazpi hilabete pasatzen ditu etxetik urrun. Lidl-Trek taldeko autobus gidari eta masajista da, eta munduko txoko asko ezagutu ditu bere lanari esker. Bizikletari lotuta txikitatik, txikitan gertutik ezagutu nahi zuen mundua ezagutzea lortu du bere eguneroko jardunari esker.

**Nor zaitugu, Irati?**

Urnietan bizi den lesakarra (29 urte). Lesakar petoa naiz, baina maitasunak ekarri ninduen Urnietara. Daukaten lanarekin Lesakan edo Urnietan bizi, berdin da, baina sentimenduz lesakarra naiz. Kirol Heziketa ikasketak egin nituen eta egun Lidl-Trek txirindulari taldeko laguntzailea naiz 2020az geroztik. Batzuetan autobus gidari, besteetan masajista. Sei urte daromatzat jardun berean.

**Nolatan aukeratu zenuen ogibide hori?**

Ikasketak bukatuta Euskadi Fundazioan hasi nintzen, eskola kirolean, haurrekin lanean. Ez ninduen bete, eta nire kabuz kirol prestakuntzak egiten hasi nintzen jendearentzat. Ikasketetan jendea ezagutzen duzu, kontaktuak lortu. Ni ere bizikletan ibilia naiz, eta masaje ikastaroak egin nituen. Ohar-kabea lasterketaren batean masajeak ematen hasi nahi ote nuen eskaini zidaten. Ikasi nuen, jendea ezagutu eta bidea ireki: Movistar taldea aurrena, eta gero egungoa: Lidl-Trek.

**Bide erraza dirudi.**

Hala esaten dit Jon bikoteak (Jon Iturria, Zure Bike bizikleta dendako jabea). Esaten diot, nik ere zerbait ona egingo nuela. Arriskuak hartu nituen, ez pentsa. Lan finko bat alde batera utzi eta buru-belarri murgiltzea erabaki nuen. Urtebete egon nintzen sos gutxi irabazita, baina sartzea funtsezkoa da. Behin sartzen zarenean, bidea egiten da. Gaztea nintzen eta garbi neukan arriskatu egingo nintzela. Beti gustatu izan zait lasterketetara joan eta autobusen jira-bueltan ibiltzea: masajistak, ziklistak, mekanikoak, ur poitoak... Idoloak hain gertu ikus-tea maite nuen, eta ondoren gertutik ezagutu ahal izan ditut.

**Hogeita hamar urte bete aurretik talde handi bateko laguntzailea zara, eta dagoeneko lau urte daromatza bertan. Zer esaten dizu horrek?**

# “Txikitan egin nahi nuena egiten dut; zoriontsu naiz”

**IRATI OTXOTEKO** LIDL-TREK TALDEKO LAGUNTZAILEA

Txirindularitza talde profesional bateko barrunbeak azaldu dizkigu; alde onak, txarrak eta anekdotak



Irati Otxoteko, Urnietan bertan egindako elkarrizketan. **AJURRI**

Bide garbia izan dudala. Bada jendea talde txikietan urte pilo egiten duena, lan hobea lortu aurretik. Txirindulari baten antzeko prozesua bizitzen dugu laguntzaileok. Txirindulariek izan dezakete sekulako talentua, baina une jakin batean zorte apur bat behar dute; momentu egokian bertan egon. Gure kasuan berdin. Ni egon behar nuen tokian egon nintzen; jende egokia ezagutu nuen ezagutu behar nuenean.

**Lidl-Trek oso talde indartsua da, World Tour kategoriako bost onenetako bat. Aurten, gainera, Lidl supermerkatu kateak dirua jarri du.**

Hala da, talde indartsua da, baina aurten talde bat gehiago gara: gizonak, emakumeak eta gazteak. Talde bat gehiago, eta jende gehiago lanerako. Bitarteko gehiago ditugu, baina UAE eta Visma-rekin alde handia dago oraindik.

**Non aritzen zara lanean?**

%95 emakumeen taldearekin eta %5 gizonekin. Aldatzea gustatzen zait. Emakumeen taldea txikia da, eta badu handicap bat: beti pertsona berdinekin egiten duzula lan. 24 ordu, hilabete bat pertsona bereberekin, iraun egin behar. Batzuetan gehiegi da. Mutilekin bi edo hiru proba jartzan dizkidatenean gustura aritzen naiz: jende berria, ambiente freskoa, lan egiteko modu ezberdina... Mutilak emakumeok baino zu-

zenagoak dira, gainera. Esan nahi dut: autobusera iritsi eta esan beharrekoak di-da esaten dituzte, zuzenak dira. Emakumeok, aldiz, gorde egiten ditugu gure sentipenak, eta geroago bota. Botatzen direnean okerrago izaten da. Hori bai, emakumeak eskertuagoak dira. Mesede bat egiteko eskatzen badizu, eta lepo zabiltzala ikusi, berak egiten du. Mutilak, orokorrean, alperagoak dira. Mesedea egin behar diozu nahitaez, izartuagoak daude. Baita gazteak ere.

**Onartua duzue txirindulariaren mesedean aritu behar duzuela egun osoa.**

Gure lana da. Txirindulariei esaten diet garbi: eskatu ahal diezagukezue ilargia, eta errespetuz egiten baduzue ez dut arazorik. Baita gauerdian eskatzen badidazu ere. Mads Pedersen da Lidl Trek taldeko izar nagusietakoa. Ba eskatzen dizun guztia errespetu handiz eskatzen dizu. Beste batzuk ez, eta horiek sortzen dute giro txarra. Emakumeen artean ez da halako harropuzkeria zantzurik sumatzen, profesionaltasuna eta diru kopuru handiak iritsi berriak direlako. 18-20 urteko belaunaldi iritsi berria errespetu askorik erakusten ez duen horietakoa izanen da agian 10 urte barru.

**Nola ikusten duzu oilartzeko hori?**

Gaizki. Txarra da. Profesionalizatzea ona da, baina ezin dugu ahaztu talde batean denok gara inportanteak. Batzuk besteak baino gehiago, noski, baina denak gara pertsonak.

**Zu ondo baloratua sentitzen zara taldean?**

Bai, orokorrean bai. Uneren batean batere ez, baina perspektibaz begiratu behar da zure jarduna. Talde handi batean nago, eta dena daukat eskura, baina beti falta da zerbait. Falta den horrekin arduratzen gara sobera, baina egindako lan ona ere eskertzen dute sarri. Beste talde batzuetara begiratzen duzu, eta nola dauden ikusi: bi masajista zazpi ziklistentzat, eta jabetzen zara ondo zaudela.

**Zaleek Lidl Trek taldeko gizonen izarrak ezagutzen dituzte, baina ez dakit askok emakumeen taldeko txirindulariaren bat ezagutuko ote luketen...**

Jauzia handia da oraindik. Gero eta ezagunagoak gara. Lizzie Deignan da gure izarra, eta ezaguna da. Elisa Longo Borghini edo Elisa Balsamo ere ezagunak

dira. Uste duguna baino jende gehiagok ezagutzen ditu. Ez dut imajinatzen erabateko parekatzea gizon eta emakumeen artean oraingoz. Gustatuko litzaidake, eta pauso onak eman dira, baina horma handia da, gainditzeko zaila..

### **Martxoan gaude, baina dagoeneko hilabete pasa eman duzu etxetik kanpo.**

Bai, gehiago. Abenduan hasi ginen, denboraldi atariko kontzentrazioan Calpen (Alacant). Ondoren egun batzuk egin nituen etxean, eta urtarrila hasieran, 3an edo 4an Down Under proba egin nuen, Australian. Bueltatu, egun batzuk etxean, eta UAE Tour (Emirerri Arabiarren Batasuna) eta Valentzia. Atzera berriro bost egun etxean, Belgikara gauzak prestatzera, Strade Bianche, Oro trofeoa, eta berriz ere buelta etxera. 10 egun egingo ditut Euskal Herrian, eta gero Binda Sari Nagusia eta altuerako kontzentrazioa Sierra Nevada (Granada, Espainia).

### **Etxera iristeko bidea ahaztuko zaitu erritmo horretan...**

Beno, badakigu zer dagoen. Are gehiago, daukaten lan egutegiari begiratuta: hiru itzuli handiak (Vuelta, Giroa eta Tourra), eta Euskal Herriko Itzulia. Aurten, behintzat, Iparreko klasikoak kendu dizkirate, Ardenak bakarrik egingo ditut.

### **Zer sentitzen da Giroa eta Tourra hain gertutik ezagututa? Gozatze-ko aukerarik geratzen al zaizue?**

Lana da, baina pribilegiatua naiz, txikitako begiekin ikusten nuena ezagutzeko aukera daukadalako. Zenbatetan probak ikustera joan, zirku barruan egon nahi... eta orain barruan nago. Itzuli handi horietan presioa handia da, ez da hainbeste gozatzen, baina tentsiorik gabeko probetan gozatzen da. Iaz, adibidez, mutilekin egon nintzen Txinako proba batean, presiorik gabe, eta han gozatu nuen. Edo Australian, bertako tenis torneoko emakumeen finalerdi bat ikusteko aukera izan nuen. Teniseko zirkuak kanpotik ikusi genuen, eta gero, gure zirkuak, zaleak guregana etortzen dira gauza eske. Egiten dudana gustatzen zait, pribilegiatua naiz.

**Konta ieza dazazu zure egunerokoa.** Masajista edo autobus gidari jardunean?

### **Biak.**

Autobus gidari moduan, esnatu, eta gosariko gauzak prestatzen



Irati Otxoteko TREK taldeko kideekin batera, busaren kanpoaldean. AIURRI

ditut sukaldaririk ez bada. Ondoren autobusa prestatu, ziklistak irteerara eraman, azken xehetasunak lotu, izan irratia, dortsala... Irteten direnean autobusa hartu eta helmugara joaten naiz. Han merienda prestatu, dutxatu ostein ziklistak jaso eta hotelera eraman. Ondoren garbigailua jartzen dugu, autobusa garbitu... Goizeko 7tan hasi eta gaueko 9tan bukatu. Eta hurrengo egunean berdina.

### **Nekagarria?**

Oso. Batez ere autobusak arazo asko sortzen dituelako: orain ate bat, gero komuneko zerbitu... espezialista bati deitu behar diozu, edo mainatsu bat izan, eta ni ez naiz oso iaioa. Halere nahiago dut gidari jarduna, masajista lana baino.

### **Zergatik?**

Giro ona sortzen delako ziklistekin, harreman ona, konplizitate. Askok hitz egiten duzu beraiekin, eta konplizitatea sortzen da. Musika jartzea dut gustuko, eta txirrindulariek gustura egoten dira. Masajista lanean hornidura poltsak prestatu ostein autoak garbitu eta prestatu eta masajiek ematera mugatzen zara. Akaso autobusarekin bukatzen duzun ordu berean bukatzen duzu, baina erosoagoa da. Azken txirrindulariarekin bukatzen duzunean

bukatu egiten da. Autobusarekin lana ez da inoiz bukatzen.

### **Masajista jardunaren xehetasunak falta zaizkigu.**

Helmugan ziklisten zain egoten naiz, eta masajea eman. Masajista jardunak badu, dena den, gauza txar bat: erosketak egin behar direla. Ez dut batere atsegin.

### **Masajistak psikologo ere ba omen zarete.**

Bai, masajea ematen duzun unean. Txirrindulariari entzun zalea naiz, eta aholkua eskatzen badit, ematen saiatuko naiz. Baina batez ere entzutea, lasaitzea, barruak askatzeko aukera ematea da gakoa. Ohatilan negarrez hasten den jende asko dago.

### **Ondo bizi al da ekonomikoki Lidl-Trek taldeko laguntzaile bat?**

Bai, ezin kexatu. Eta parekotasuna erabatekoa da soldata mailan gizon eta emakumeen artean. **Nolakoak izaten dira garaipena lortzen diren egunak?** Askotan ezin ditugu ospatu, lasterketa bukatu eta berehala beste karrera hasten den tokira joan behar dugulako. Poza momentukoa da. Itzuli batean akaso errazagoa da, baina hurrengo etapa azkar etortzen da.

### **Ingelesez moldatzen zara.**

Ezinbestean. Eta etxera bueltatzen naizenean kostatzen zait

buelta ematea, ez pentsa. Ingeleseko hitzak erabiltzen ditut oharkabean bikotearekin edo koadrilarekin.

### **Bizikletan ibiltzeko astirik geratzen zaizu?**

Gutxi. Zokoratuta dut. Atzerrian nagoenean korrika egiten saiatzen naiz.

### **Lidl-Trek taldeko masajista, bikoteak ere bizikleta denda... Bizikleta gaindosirik ez?**

Gehiegi da, bai. Koadrilarekin saiatzen naiz arnasa hartzen, pote bat edo afariren bat antolatzen dugunean Lesakako jendearekin. Familiarekin ere egoten saiatzen naiz, edo beste kirol batzuk egin: gimnasioa, korrika, eskalada... Eskerrak eman nahi nizkieke koadrilakoei, euren laguntzagatik. Haiekin nagoenean bizikleta solasaldi guztietatik kanpo uzten saiatzen naiz.

### **Bikotekidearen dendara ez zara asko hurbiltzen, ezta?**

Ez, bost minutu asko jota.

### **Amets bat?**

Orain bezala jarraitzea luze. Gustura nago, zoriontsua naiz. Ez dut gauza gehiago behar: bidaiatzen dut, leku eta jende berria ezagutu, lana gustukoa, eta ordaindu egiten didate! Gero etxean nabaritzen dut ez dudala izaten bidaiatzeko gogorik, edo etxetik kanpo bazkaldu bai-

no otordua etxean egitea nahia go dudala. Izokinak bezalakoa naiz, kontrakarrean ibiltzen naiz.

### **Azkena, publiko egin dezakezun anekdotaren bat.**

Abizena tx-rekin idazten dut, eta galdetzen didate ea nongoa naizen. Euskal Herrikoa naizela esaten diet, paradisuan bizi naizela, eta euskaldunak indartsuak garela. Badakite guk masajeak fuerte ematen ditugula. Taldean aunitz gara, eta sona hori jarri digute. Zakar samarrak ote garen ere badiote... Izan da bakarren bat kargu hartu didana itsusi samar, dutxa azkar bukatzeko eskatu niolako... Hornidura puntuetan abesti bat abesten diet txirrindulariei. Horietako batean 'Ain't no mountain high enough' abestia hautatu nuen, etapa gain batean bukatzen zelako. Ur potoa ematen eta kantari ari nintzen, bozgorailu batekin. Lizzy Deignan eta Elisa Longo ihesaldian pasa ziren, serio, eta ez nuen abestu, badaezpada. Ellen Van Dijk atzeratuta pasa zen, eta ni kantuan hasi nintzen: Ellen-ek 'fuck you Irati' esan zidan (joan zaitez haizea hartzera) ozen eta haserre, eta aho bete hortz geratu ginen laguntzaile guztiak. Gero barkamena eskatu zidan autobusean.

# "Egun mendi-gidaria naiz Himalaian"

**AITOR IGINITZ OIARTZABAL** MENDI-GIDARIA

Mendebaldetarron bizi-baldintza erosoak saihestu, eta, 2006ko urrian, bizikleta hartu, eta helmugarik gabeko ibilaldia egitera abiatu zen, munduan barrena

**Xabier Lasa** ANDOAIN

Geroztik, Europa, Asia, Afrika, Amerika eta Ozeaniako 70 herrialde zeharkatu, 140 milatik gora kilometro egin, eta munduari hiru bira eta erdi egin ostean, Himalaiako lurretan sustraiak bota dituela dirudi, nomada izateari kito esanda. Urigain kultur etxean, Iñaki Eizmendi hernaniarrek eta Oskar Sanchez, Joxelu Zuriarrain eta Alfredo Rodriguez andoaindarrek Kanchenjungako eta Annapunako trekkingak hizpide izan zituzten otsailaren 28an. Aitor Iginitz izan zuten mendi-gidari.

**Izpiritu librekoa, bai, baina jada Himalaian asentatuta?**

Baietz esango nuke! Mentalizata nago horretarako, nahiz eta, akaso, hemendik bizpahiru urtetara, berriz ere erabaki nire bizitza iraultzea (barreak). Katmandun bizi naiz egun, trekking alternatiboak antolatu eta mendi-gidari gisa bizimodua ateratzeko asmotan nabil. Tarteka, urtean bizpahiru hilabetez, Andoainera itzultzen naiz, niretarrekin egotera, gurasoekin batez ere.

**Zurekin Himalaian oso gustura ibili zela aitortu zuen laukoteak, Urigoango hitzaldi eta argazki-proiektioan.**



Himalaian mendi-gidaria da egun (mundunomada.com eta @mundunomada). AJURRI

Ni ere pozik ibili nintzen laukotearekin. Jakitun ziren zein baldintzetan antolatzen ditudan bidaiak, eta ederki moldatu ginen. Jakina, mendi-gidaritza bizimodua ateratzeko modua bilakatu da niretzat; baina, hala ere, gogo onez egiten dudana eginkizuna da. Izugarri asebetetzen nau. Badakizu zer den, hemengo mendizale bat pozez zorutzen ikustea, "hauxe zen nire bizitzako ametsa!" esaten

duen bitartean? Urtetan aurretan ibili eta gero, Himalaiara joan, eta bizitzako ilusioa kumplitzen ari zaienean, bada, zer nahi duzu esatea. Polita da une majiko horiek partekatzea!

**Urigainen aipatu zenuen zure eskaintzak ez duela zerikusirik agentzia tradizionalen filosofiarekin.**

Argi daukat, ezin dudala lehiatu agentzia handiekin, ezta nahi ere! Nahi duenak erraz bila dezake bidaiara merkeagoa, eta etxe-

ko erosotasunez beterikoa gainera. Izan ere, Himalaiako trekkingak izugarriko negozioa bilakatu dira. 2023an marka guztiak hautsi zituen Ameriketatik, Europatik, Indiatik, Japonetik edo Koreatik doan turismoak, eta, urtez urte, handitzen joango dela aurreikusten da. Ederki zabaldua dago mezua, alegia, dirua edukiz gero, ahalgin fisiko gutxiarekin, etxeko erosotasun berberekin kasik eta epe laburrean, Himalaiako parajerik zoragarrietara iritsi eta bertan selfia egin daitekeela. Nire eskaintzak baditu aparteko ezaugarri batzuk: hala nola, bidaiara Katmanduko aireportuan hasten denetik bukatzen den arte tratatu pertsonal gozoko gidaria edukitzea ondoan; gidaria euskal hiztuna izatea; ondo planifikatutako (altitudeak eragindako buruko gaixotasuna ekiditeko aklimatazioa, batik batik) bidaiara ziurtatuta edukitzea; tramiteak, baimenak edo aterpeak kontrolpean edukitzea; bertako herriarrek tratua edukitzea eta beren egunerokotasunean eta kulturaren zerbait murgildu ahal izatea; bertako zamaketariei arauz ezarrita dagoen huskeria baino zerbait gehiago ordaintzea...

Saiatzen naiz transmititzen hemendik hara goazenok Himalaiako jendea modu duinean eta errespetuz zaindu behar direla; izan ere, haien baliabide naturalekin gozatzea goaz, eta nolabait, beren egunerokotasunean ahalik eta trabarik gutxieneragin beharko genieke. Guztiok dauzkagu kontraesanak, baina gutxienero etikarekin jokatu, saia gaitzke himalayismo merkantilista saihesten...

**Pertsona arruntek, pixka bat prestatuz gero, Himalaian zeharkaldia**

**egin ditzaketela adierazi zuen laukoteak Urigainen.**

Halaxe da. Ez da egundoko prestakuntza fisiko edo teknikorik eduki behar. Gertuko mendietan, Adarran edo Txindokin dabilenak, bospasei orduko zeharkaldi egitera ohituta dagoenak, aisa egin ditzake Himalaian trekkingak. Hori bai, nik behintzat, bi gauza estimatzen ditut gehien hara doanengan: batetik, giza-jarrera, hots, prestutasuna edukitzea hango paraje naturalez, jendeaz, koloreez gozatzeko eta zeharkaldian sortzen diren gauza txikiak baloratzeko. Eta, bestetik, lagun-giroan ibiltzen jakitea.

Izan ere, egun, diru pixka bat edukita, gauzak di-da batean egin ditzakezu. Hots, Euskal Herritik bertatik hartu dezakezu hegaldia ostiralean, gero Katmandun helikopteroa hartu eta Annapurnako oinarriko kanpalekura iritsi, ordu erdiko ibilaldiaren ostean Annapurnako hegoaldeko zirku ezin ikusgarriagoaren parean jarri, selfia atera, eta astelehenerako etxera itzuli. Bidai espres hori egin liteke, bai, baina barne-barnean iltzatuta geratuko zaizun bizipena izango al da hori, benetan? **Nola zara hurrengo aste eta hilabeteetan?**

Jada, Hernaniko zortzi lagunekin Manasluko trekkinga maitezean egiteko konpromisoa hartuta daukat. Udan, Indiako iparraldean, Tibeteko goi-lautadaren jarraipena den Ladakh izeneko eremuan, Indiako iparraldean, beste trekkinga gidatuko dut. Bizikletan munduan barrena urtetan bidaiarekin nuen Laura Martinezek atsedentxe bat kudeatzen du han, eta bertako mendi-zeharkaldiez arduratzen naiz.



## berria

ERREMONTE TRAPELNETA 2024

Batu jostak berria

▶ Instagram: @oriamendimemortea

▶ YouTube: berria

▶ Twitter: @oriamendimemortea

1. PARTIDA (3 SETENA)

ZALDUA II - ESKUDERO vs GURRUTXAGA - AIESTARAN VI

2. PARTIDA (4 SETENA)

ANSA II - LARRAÑAGA vs ALDABE - BARRENETXEA IV

3. PARTIDA (5 SETENA)

EZKURRA II - ZUGIRI vs LOITEGI - JUANENEA















AIURRI

## Zaletuen babesarekin, irabaztera

Azken txanpan sartu da gizonetzkoen Gorengo mailako liga eta Urnietak dena eman beharko du sailkapenaren atzealdetik irteteko. Larunbat honetan, etxean ariko da, Baskoniaren aurka. Sailkapenaren 2. postuan da aurkaria. Partida zaila dirudi, baina zaletuen laguntzarekin garaipenaren bila irtengo da.

### Gorengo mailako nesken garaipena

Urnietak 1-0 Antigua. Ligaska berriaren garaipena eskuratu zuten Urnietako neskek.

### Zaldua-Eskudero, larunbat honetan

Andoaindarrak Berria txapelketa jokatu du, larunbat honetan, 16:30ean hasita, Galarretan.

## Liderra garaituta, Ordiziaren aurka ariko da Leizaran

Leizaran 33-25 Laubide Legazpi. Parekotasun handiko liga da. Aurrekoan, Allurralden, etxeokoe liderra garaitu zuten. Asteburuan Ordizian dute partida. Zorte on!

SAILKAPENA	
1	Laubide Legazpi 30
2	Leizaran Ernio 27
3	Ordizia 27
4	Urola 22

## Euskaldunaren zazpigarren garaipena jarraian

Euskalduna 4-1 Segura: Gaztañagarekin zazpigarrena jarraian lortu dute. 11. postuan sailkatuta dagoen Zestoaren zelaian ariko dira asteburuan.

SAILKAPENA	
1	Mondragon 53
2	Euskalduna 43
3	Urki 43
4	Aloña Mendi 40



Reyes Carrere.



Eli Pinedo.

## "Zuengatik gara", jardunaldia, Bastero Kulturgunean

Larunbat honetan ikus-entzunezkoa eta solasaldia antolatu dute, Bastero Kulturgunean, 18:30ean hasita

### Erredakzioa ANDOAIN

Iazko urtearen hasieran Leizaran eskubaloi taldeak antolatu zuen beterranoen eta egungo nesken lagunarteko partida gogoan hartuko dute. Ondoren solasaldia izango da ibilbide oparoa duten hiru kirolari ezagunen eskutik.

- Reyes Carrere, Bera-Berako jokalaria eta entrenatzaile ohia.
- Patri Pinedo, Itxako eta Bera Berako jokalaria ohia.
- Toñi Lopez, Leizaraneko jokalaria eta entrenatzaile ohia.
- Ainara Arratibel kazetaria, moderatzailea.



UKE

## Liga hirugarren amaituta, Kopari ekingo diote

1.Lurraldeko senior emakumezko liga amaierara iritsi da, eta hirugarren postuan sailkatu da lehen multzoan lehiatzen aritu zen Quel abogados taldea. Azken jardunaldia etxean jokatu zuten eta La Salle Legazpi taldea 21-18 garaitu zuten.

Txingudi izan da txapelketa, ligako 16 jardunaldietan garaipena eskuratu ondoren. Aloña Mendi sailkatu da bigarren, eta Urnietak hirugarren. Hamasei partidatik, hamaika irabazi dituzte eta bost galdu.



2023ko urtarrilean atzoko eta gaurko jokalaria elkartu zituen Leizaranek. AIURRI



andoaINDARRA  
euskaraz

## HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

## OSTEGUNA 14

**ANDOAIN Erakusketa**

EmPoderArte Emakume Artisten Nazioarteko Elkartearen erakusketa, bertako artistekin batera.  
*Ohiko ordutegia, Bastero.*

**ANDOAIN Aurkezpena**

Aurkezpena: Jon Artanoren "Juanaren istorio harrigarria" liburua. Egilea bertan izango da. Ekintzaile ekologista eta lider soziala zen liburuaren protagonista.  
*18:30, Bastero kulturgunea.*

## OSTIRALA 15

**URNIETA Pailazoak**

"Ez gara jaitsiko" ikuskizuna, Porrotx, Marimotots eta lagunekin. Sarrerak 8 eurotan salgai Urnietako 2KNn, Andoaingo Ernaitzan eta Aiurriko bulegoetan salgai.

*Bi saio: 17:00, 19:00. Sarobe.*

**ANDOAIN Opera**

"Badon" opera garaikidea, Korrika Kulturalak antolatuta. Hainbat artisten topaleku bilakatu da ikuskizuna.  
*20:30, Bastero.*

## LARUNBATA 16

**ANDOAIN Dokumentala**

Dokumentala: "Zuengatik gara", Leizarango eskubaloi topaketari buruzkoa.  
*18:30, Bastero kulturgunea.*



Porrotx, Marimotots, dordoka eta lagun gehiago hurbilduko da Sarobera. **AIURRI**

**URNIETA "Ez gara jaitsiko" pailazoaren emanaldi bikoitza**

Korrika Kulturalaren baitan, AEK-k, Aiurrik eta euskaltzaleek antolatuta. Sarrerak 8 euroko prezioan salgai daude Sarobe ondoko 2KN kafetegian eta Andoaingo Ernaitzan eta Aiurriin.  
*Martxoak 15, ostirala. 17:00, 19:00. Sarobe.*

## IGANDEA 17

**ANDOAIN Kontzertua**  
Olagain Txistulari eskutik.  
*12:00, Bastero.*

## ASTEARTEA 19

**URNIETA Korrika**  
Hernanitik iritsiko da, Lasarterantz.  
*21:38, Hernani-Urnieta muga.*

## OSTIRALA 22

**ANDOAIN Antzezlana**  
"La sed del minotauro", elebitan.  
*20:30, Bastero.*

## LARUNBATA 23


**ANDOAIN, URNIETA Korrika**  
Aduna aldetik iritsiko da.  
*Bazkalostean.*

## IGANDEA 24

**URNIETA Antzerkia**  
"Yerma, La dramática errante".  
*19:00, Sarobe. Gaztelera.*

**ANDOAIN Bertso-saioa**  
Sahararen alde. Amets Arzallus, Sustrai Colina, Oihana Iguaran, Maialen Lujanbio, Aitor Mendiluze eta Lierni Rekondo.  
*12:00, Bastero.*

## ZINEMA

**ANDOAIN****BASTERO****Kung Fu Panda 4**

Lar, 16. 17:00.  
Ig, 17. 17:00.


**Priscilla**

Lar, 16. 19:30,  
22:00.  
Ig, 17. 19:30.

Astl, 18. 19:30,  
22:00.

**Tratamos demasiado bien a las mujeres**

Lar, 23. 19:30,  
22:00.  
Ig, 24. 19:30.  
Astl, 25. 19:30,  
22:00.



## SINOPSISIA

**Priscilla**

**Zuzendaria, gidioia:** Sofia Coppola. **Aktoreak:** Cailee Spaeny, Jacob Elordi, Emily Mitchell, Ari Cohen, R Austin Ball, Kamilla Kowal, Deanna Jarvis, Luke Humphrey... **Herrialdea:** AEB (2023). **Hizkuntza:** Gaztelania. **Generoa:** Drama. **Iraupena:** 112 min.

## Presley senar-emazteak

1985ean Priscilla Beaulieu Presleyk idatzitako "Elvis and Me" memoriaren oinarritutako filma. Elvis eta Priscillaren ezkontza luze eta zurrumbilotsua kontatzen

dute, Alemaniako base militar batetik hasi eta Gracelandeko bere ametsezko finkaraino. Elkar ezagutu zutenean Elvis Presley dagoeneko rock izarra zen.

## SAPAKo langileak, greban

Andoaingo Sapa Operaciones enpresako hitzarmena berriro gabe dago 2012tik, langileen ordezkariak salatu dutenez. Aurrez, bestelako presio bideek erantzunik ez dutela izan ikusita, grebari ekitea erabaki dute. "Soldata alorrean igoerak adostu badira ere, urte hauetan, enpresak ez du bestelako negoziaketetan sartu nahi izan". Horiek horrela, egun hauetan

SAPA enpresako langileak kalera irten dira. Astelehenean Ama Kandida etorbidea zeharkatu zuten.

Asteartean, aldiz, Aiztondo bailarara eraman zuten protesta. Amasa-Villabonako kaleak zeharkatu zituzten, auto-karabanan. Anoeta estadioan ere izan ziren. Mobilizazio gehiago iragarri dituzte, datozen egunetarako.





Olagain elkarteko kideak eta Urkikoak, artxiboko irudian. AIURRI

## Olagain Udal Txistulari elkartearen emanaldia, Goiburun

"Udaberriko kontzertua" egingo dute, hainbat lagunerekin parte-hartzearekin

### Erredakzioa ANDOAIN

Igande honetan, martxoak 17, Andoaingo txistulariekin kontzertua egingo du Andoaingo Goiburun auzoko San Esteban ermitan. Eguerdiko 12:00tan hasiko da. Lagun ugari izango dituzte alboan. Javi Gestoso gitarrajolea, Joxema Setien baxujolea, Andoni Gonzalez akordeoilaria, Garazi Jauregi kantaria, Aingeru Zabala eta Edorta Setien tronpetajotzaileak, Urki Dantza Taldea eta Olagain Udal Txistulari Elkarteak. Aitor Mendiluze bertsolaria ere kantuan ariko da. Besteak beste, honako hauxe da errepertorioa:

"Goiburu", "Lehenengo kontrapasa", "Enarak", "Beti nigandik gertu", "Haurrak lotaratzeko soinua", "Auspo jotzailearen ametsa", "Gurea", "Nafarroa arragoa", "Vinu, cantares y amor" eta "Udaberriko lore politena".



Aitor Mendiluze. BERTSOA



AIURRI

## Sahararen aldeko bertso-saioa

Punttuka Bertso-Eskolak eta Hurria Sahara elkarteak antolatuta, bertso saio solidarioaren edizio berria izango da martxoaren 24an. Ohi bezala, eguerdiko 12:00tan hasiko da Bastero Kulturgunean. Sei bertsolari ariko dira kantuan: Amets Arzallus, Sustrai Colina, Oihana Iguaran, Maialen Lujanbio, Aitor Mendiluze eta Lierni Rekondo. Gai-jartzaile lanetan Maddi Etxeberria ariko da.

## Egunean Behin lehiaketa

Egunean Behin lehiaketa ezagunaren denboraldi berrian Arruti gozotegiko saria zozkatzen ari gara, "Aiurri" taldeko partaideen artean. Zazpigarren asteko sariduna "Lamiti banana" izan da. Otsailak 26-martxoak 3 asteko 7 partidak jokatu zituen, eta ehunka lehiakide dituen Aiurri taldean bera izan da zozketaren irabazlea. Denboraldia azken txanpan sartu da.



AIURRI

## ZORION-AGURRAK



ANDOAIN  
**Carla Romero Ameyugo**  
Martxoaren 19an, 9 urte beteko dituzu. Asko maite zaitugu maitia!!! Muxu handi bat!!!



ANDOAIN  
**Iker Miguez Bellon**  
Zorionak bihotza, 12 urte! Handitzen handitzen... asko maite zaitugu! Muxu potoloak! Amabxo eta Aitabxo

## ODOL-EMAILEAK

### HITZORDUA

**Martxoak 25, astelehena. URNIETA**  
Plazido Muxika enparantza: 16:30- 20:30.



## MERKATU TXIKIA

### LANA

Pertsona baten bila gabiltza Andoaingo taberna batean lan egiteko. Lanaldia: 10 ordu astean. Astelehenetik ostiralera 2 goiz (bakoitzean 3 orduko lanaldia), ostegun arratsaldeak (2 ordu) eta hamabost egunean behin igande goiz bat (2 ordu): 675 989 610.

**BIRZIKLATUZ,  
IRABAZTEN  
DUGU**



**JOLASTU,  
PARTE HARTU  
ETA IRABAZI**

sanmarkos Mankomunitatea ecoembes



Gaikako bilketaren alde

# Handitu zure aurrezkiak urratsez urrats

## Rural Kutxa *Aurrera* gordailua

Epe finkorako gordailua, 12 hilabetera, zure aurrezkiak ordaintzen dituena, **% 3,546eko UTB**arekin, honela:

Lehen hiruhilekoa  
**ITN % 3,50**

Bigarren hiruhilekoa  
**ITN % 3,50**

Hirugarren hiruhilekoa  
**ITN % 3,50**

Laugarren hiruhilekoa  
**ITN % 3,50**



**UTB**  
**% 3,546**

Epea: **12 hilabete**  
Interesak hiru hilean behin likidatuko dira

*Beti  
hurbil*

RURAL KUTXA VILLABONA  
Nueva, 43 · 943 69 07 80  
oficina.0250@ruralkutxa.com

RURAL KUTXA URNIETA  
Idiazabal, 30 · 943 59 60 04  
oficina.0268@ruralkutxa.com

[www.ruralkutxa.com](http://www.ruralkutxa.com)

Rural Kutxan aurrezki garbiaren maila gordailu hau kontratatuz handitzen dutenentzat bakarrik da baliagarria proposamena, 2024/04/30ra arte.

2024/02/01ean 100.000 euroko gordailua egiteko adibidea: 2024/05/01ean, 875 euroko interes gordinak likidatuko ditu; 2024/08/01ean, 875 euroko interes gordinekin; 2024/11/01ean, 875 euroko interes gordinekin; eta 875 euroko interes gordinekin, 100.000 euroko printzipalarekin batera (2025/02/01ean), 3.500 euroko interes abonatuak guztira.

Itzulketa aurreratua komisioa %1ekoa da (gordailua hasten den egunetik zenbatzen hasita).

